

Zer ondo ibili ginen!

Iker: Kaixo, Malen! Jo, zer ondo pasatu genuen atzo Senperen!

Malen: Bai? Pozten naiz! Zer egin zenuten?

Iker: Ba, denetarik! Ni, goizean, zuzen-zuzenean joan nintzen taloa jatera!

Oihana: Zu eta denok! Zer goxoak zeuden!

Malen: Bai, oso ondo prestatzen dituzte! Giro ona zegoen?

Iker: Izugarria! Taloa jan bitartean, batzuek joaldunak ikusi zituzten, eta beste batzuk Baxe Nafarroa gunera joan ginen, elektrotzaranga ikustera. Zer onak, ezta, Oihana?

Oihana: Bai, ez genuen txaranga mota hori ezagutzen, eta asko gustatu zitzaigun. A zer martxa!

Malen: Ei, eta batukada ikastaroa egin zenuten?

Iker: Ez, hori ez, baina gero denok joan ginen Lapurdi gunera eta euskal dantza ikastaroa egin genuen.

Malen: Bai zera! Denek? Zuk ere bai, Oihana?

Iker: Bai, bai, Oihanak ere bai. Beti esaten du dantzari txarra dela, baina oso ondo egin zuen!

Oihana: Gezurra! Denak alde batera eta ni bestera! Laster egingo dute meme bat, ikusiko duzu! Aiii... Onena gero jan genuen ogitartekoa!

Iker: Ogitartekoa ez dakit ona zegoen, baina bazkari herrikoia mundiala! Markelek eta biok herri kirolak ikusi genituen, eta, gero, paella jan genuen Gipuzkoa gunean.

Oihana: Bai, eta, arratsaldean, denok joan ginen Esne Beltza ikustera! A zer kontzertua!

Malen: Aizue, eta ez zenuten erronkan parte hartu?

Iker: Ez, aintzira ondoan egon ginen kontzertura joan aurretik: lasai-lasai, etzanda, eguzkitan!

Malen: Ba zer pena! Oso-oso dibertigarria da!

Oihana: Bai? Jo... Bueno, datorren urtean parte hartuko dugu!

Malen: Datorren urtean, erronka, tirolina eta ginkana! Ezin dituzue galdu!

Iker eta Oihana: Ados!